


**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**FORU PASEALEKUA 5**

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1892.

**Deskribapena.**

Osinalderen jatorrizko proiektuaren arabera (gaur egun ordezkatuta dagoen Bergara 23 edo San Martin 2rekin komuna) eraikinak bastardea, hiru goi oin eta erlaitzaren gainean balaustrada bat zituen. Obrak burutzen ari ziren bitartean, 1893an, Osinaldek lanak utzi eta Manuel Urcolak ordezkatu zuen. Zenbait urte beranduago, 1921ean, Luis Elizalde arkitektoak bi jasodura egin zituen, lehenengoa fatxada planoan eta bigarrena atzeraemangunean. Duela gutxi eraikinaren barrualdea oso-osorik eraberritu zuten eta mansarda eraiki zuten, estalkipean bi maila ipintzeko. Eraikinaren fatxada oso garatua dago eta atari bakarra du. Pasealekura begira dagoen aurrealdearen konposizio eskema simetriko baten erdian kokatua dago sarrera. Ardatz hau bat dator bi etxebizitza dituen oin bakoitzera igotzeko eskailearekin. Etxeak bi patio zentral ditu. Jatorrizko fatxadak Zabalduraren tradizio neoklasiko garbiena jarraitzen du, erreferentzia klasikoko apaingarrietan konposizio soil baina,aldi berean, finak dituzten eraikinen artean. Apaingarrien artean pilastrak eta erlaitzak dituzten baoetako azpadurak nabarmentzen dira.

**Babes erregimena.**

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.